

EH Bildu talde politikoa Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

KONTROL MOZIOA

DONOSTIAKO HONDARTZETAKO SOROSLEEN LAN BALDINTZAK DIRELA ETA

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzataren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzat azter dadin. Mozioa 2020ko uztailaren 13an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Urtero, hondartzen udako irekierarekin batera, Donostiako Udalak “Zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuak hondartzetan eta irlan eta lagundutako bainurako zerbitzua ezintasunen bat duten pertsonentzat Donostiako Kontxako hondartzan” xede duen kontratazio espedientea onartzen du (aurten martxoaren 10ean presazko prozedura irekiaren bidez).

Azkeneko hiru urteetan, hainbat kexa eta eskaera egon dira langileen eta ELA sindikatuaren aldetik, sorosleen lan baldintzak hobetu eta haien eskubideak bermatzeko helburuarekin. Izan ere, hilean 900 euro azpiko soldatak zituzten, baina 10 orduko lan jardunak (atsedenik gabe) eta aldi baterako kontratuak (nahiz eta, urteak zeramatzaten lanean, ez zeukaten fijo diskontinuo izaera aitortua).

Gauzak horrela, 2017-2018 neguan, epe horretan zerbitzua esleitua zuen Gurutze Gorriarekin negoziatzen hasi ziren, 2018ko uda aurretik inongo akordiorik lortu gabe. Greba mugagabearen atarian akordioa sinatu zuten, Udalekin eta enpresarekin, Lan Delegaritzan. Akordioak hainbat ardatz zituen, baina Udalarari dagokionez, bi betebeharrak: alde batetik, pleguetan sinatutako lan baldintzak bermatuko lituzkeen partida ekonomikoa jartzea eta, bestetik, SUBROGAZIOA bermatzea. Bere momentuan EH Bilduko ordezkariak hondartzen ardura zuen zinegotzi ordezkariarekin (Alfonso Gurpegui) ahozko akordio bat egin zuten, subrogazioaren gaiarekin.

Baina, 2019ko udaran, Gipuzkoako udal guztietatik, Donostiako Udala izan zen bakarrik baldintzak ez betetzen. Hau da, pleguetan ez zuen subrogazio klausula sartu, langileen etorkizuna airean utzita.

2019ko udaran, enpresa aldaketa etorri zen hondartzetara, eta ordura arte Gurutze Gorriak kudeatu zuen zerbitzua BPXport enpresari esleitu zitzaion. ELAk Udalarekin eta enpresarekin hainbat bilera izan zituen, baina hala ere, ez zuen Udalak pleguetan klausula sartzea lortu; bai, ordea, enpresak langileei haien nominetan antzintasuna aitortzea, eta Udalak subrogazioa bermatuz gero, fijo diskontinuo izatera pasatzeko konpromisoa.

2020ko udaran, plegu berri bat atera da, berriz ere subrogazio klausularik gabe. Enpresak, aurreko urtean ez bezala, ez ditu langile guztiak lanerako deitu, aurreko urteetan mobilizazioetan aktiboki parte hartutako lau langile kanpoan utzita.

Batzordean delegatuak adierazi digu subrogazioaren gaia ezinezkoa dela eta horrela adierazten dela 2019ko maiatzaren 16ko sententzian, baina egoera hori pleguak egin dituen Udala

EH Bildu talde politikoa **Grupo político EH Bildu**

lijentea, 1 - Tel. 943481027 - www.donostia.ehbildu.eus -
20003 Donostia

Gobernuaren borondateari dago lotuta zeharo. Hau da, Udal Gobernuaren borondatea da zerbitzua kudeatzen duten enpresen aldatetak daudenean subrogazioa bermatzeko neurriak eskatzea, Gipuzkoako kostaldeko beste udalerrietan egin den bezala.

Sorosleen mobilizazio eskubideei dagokionez, jakin dugu uztailaren 14an Donostiako Udaltzaingoak salaketa bat jarri diela egun horretan mobilizazioetan parte hartzen ari ziren pertsoneri eta FCCko langileak bidali dituela mobilizazioko materiala kentzeko. Ezin dugu jarrera autoritario hau ulertu, kontuan izanda mobilizazioak egiteko baimena eskatu eta eman zitzaizela.

Hortaz, azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA

- 1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuak hondartzetan eta irlan ematen dituen enpresaren eta langileen arteko bitartekaritza lana egin dezala.
- 2.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari sorosleen subrogazioa bermatzeko pausoak eman ditzala datozen urteetako denboraldiei begira.
- 3.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari langileen eta gainerako herritarren mobilizazio eskubideak oztopa ez ditzan.

Donostian, 2020ko uztailaren 16an

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia